



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO
	ITUNDUA
	FRANQUEO
	CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2019ko ABENDUA - 209 zenbakia

Badator Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala

Abenduaren 14an jokatuko da Donostia Arenan, Illunben, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala; sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus atarian.

Guztia dago prest. Agin Laburu, Beñat Gaztelumendi, Jon Maia, Alaia Martin, Ane Labaka, Oihana Iguaran, Beñat Lizaso eta Nerea Elustondo igoko dira abenduaren 14an Illunbeko oholtzara, eta zortzietako bat izango da 2019ko Gipuzkoako txapelduna. 17:00etan hasiko da finala eta Ion Zaldúa Brit eta Itziar Etxezarreta Arakistain ariko dira aurkezle lanetan.

Illunbeko atea 15:30ean zabalduko dira. Antolakuntzak garaiz joateko gomendioa helarazi nahi du, jende asko bilduko baikara leku berean. Ohi bezala, finalera joateko garraio publikoa erabiltzea da gomendioa. Herrietatik autobusen bat antolatu behar baduzue, mesedez, Gipuzkoako

Elkarteari abisua ematea eskertuko genuke, horientzako aparkalekuak modu egokian koordinatu ahal izateko.

Xabier Gaztelumendi, txapel emaile

Aurtengo Gipuzkoako txapeldunari Xabier Gaztelumendik jantziko dio txapela. Bertsozalea betidanik izan den arren, elkarte berru barrutik ezagutu eta bizi izan du Xabierrek: 2002tik elkartean inurri lan nekazinean aritu da, lehen 8 urtetan diruzain izan zen, eta hurrengo 8 urtetan, berriz, idazkari. Bitarte horretan Zuzendaritza Batzordeko kide izan da, Batzorde Ttipiko kide, eta eguneroko lanak eta kontu operatiboak kudeatzen aritu da Administrazio Saileko langileekin.

Ezinbesteko lanak eta gehiago egin ditu Xabierrek, eta Gipuzkoako Elkarteak omenaldi berezi hau egin nahi izan dio finalean, berak egindako lana itzulezina bada ere, fokupera ekarri eta merezimenduaren aitortza gisa.

Sarrerak, salgai

Finaleko sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus atarian. Ohi bezala, elkarteko bazkideok prezio berezian duzue sarrera, 18 euroan; gaztetxoek, 12 euroan eskura dezakete; gainerakoek, 24 euroan izango dute.



Abenduaren 14an, 17:00etan izango da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala. / XDZ



JONE
URIA ALBIZURI

Gernika-Lumo 2019-X-27

Jon Lopategiren omenezko saioa

Doinua: *Iparragirre abila dela*

Helburu handi bat betetzeko nahiz egiteko bi gauza on maiz soilik behar da bista eukitzea joan, egin eta egon koplatan zein bertsotan Durangon zein Algortan berdin zizun nola ta non gaur beste askorik ezin da esan bihotzez mila esker Jon!

Aramaion ospatuko da Bertso Eguna 2020 urtarrilaren 18an

Bertso ibilbidea antolatu dugu goizean eta iluntzera arteko egitarau zabala egongo da; bazkarietarako txartelak www.bertsosarrerak.eus atarian jarriko dira salgai abenduaren 17tik aurrera.

Egitarau betearekin dator 2020ko Bertso Eguna. Urtarrilaren 18an, larunbatez, ospatuko dugu Aramaion 51. edizioa. Egunean bertan, Arabako Bertsozale Elkarteak Batzar Orokorra eta Arabako Taldekako txapelketaren aurkezpena egingo dira Aramaion, goizean. Horien ostean emango zaio hasiera Bertso Eguneko egitarauari.

12:30ean bertso ibilbide gidatua izango dugu aukeran, herriko erdigunean. Gidari lanetan hainbat bertsolari ariko dira: Xabi Igoa, Irati Majuelo, Jokin Uranga, Oihana Bartra, Sustrai Colina, Martin Abarrategi, Oihana Iguaran, Andoni Egaña eta Ane Zuazubiskar.

Ibilbidea egin eta gerorako, bazkariak antolatu dira Iparra He-goaren eskutik hainbat elkartetan. Lau bertso-bazkari egongo dira aukeran: Uribarri elkartean, Onintza Enbeita eta Sebastian Lizaso ariko dira bazkalostea bertsoz janzten; Zabolana, Iñaki Viñaspre eta Ane Labaka; Izarran, Eneko Lazkoz eta Mi-

ren Artetxe; eta Ehiztari txokoan, Nerea Elustondo eta Unai Iturriaga. Uribarri eta Zabola joateko autobusak antolatu ditu Bertsozale Elkartek herrigunetik: Lehenengorako autobusa 14:30ean aterako da herritik; Zabolara doana, 14:45ean.

Bazkarietarako sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian jarriko dira salgai abenduaren 17tik urtarrilaren 10era arte, 20 euroren truke.

Jai giroa, gauera arte

Janariz zein bertsoz ase ondoren, festak ez du etenik izango. 19:00etan jai giroz gozatzeko aukera izango dugu trikitilariak gidatuta. Plazan hasiko da.

Aramaion lo egiteko lekua egokituko da eskaera egonez gero. Informazioa Bertsozale Elkarteak web orrian jarriko da.



Herrian zehar ibiliko dira goizean bertsolariak, ibilbide gidatua osatuz. / XDZ

Euskal Herriko Bertsozale Elkartek eta LABORAL Kutxak lau urtetarako hitzarmena berri dugu

Euskal kulturaren eta euskararen garapenean dugun helburuetan bat egiten dugu bi erakundeok. LABORAL Kutxaren ekarpenak Euskal Herriko Bertsozale Elkarteen proiektuari bultzada emango dio.

Duela lau urte hartutako konpromisoari eutsiko diogu Euskal Herriko Bertsozale Elkartek eta LABORAL Kutxak. Arrasaten, LABORAL Kutxaren egoitzan elkartu dira bi erakundeotako ordezkariak duela lau urte sinatutako hitzarmena berritze-ko: LABORAL Kutxaren izenean Ibon Urgoitik, Negozioaren Garapen Areako zuzendariak, eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteen izenean, Lehendakaritza Taldeko kidea den Igor Elortzak sinatu dute hitzarmena. Akordio honi esker, LABORAL Kutxak Euskal Herriko Bertsozale Elkarteen proiektu

osa garatzen lagunduko du. Bertan izan da Xabi Igoa ere, Euskal Herriko Bertsozale Elkartetik, eta Inaxio Garro, euskara arduraduna eta Komunikazio arloko hainbat lankide, erakunde finantzariorik.

Elkartek eta LABORAL Kutxak, euskalgintzari eta kulturagintzari loturiko helburuetan bat etorrita eta elkarlanean sinetsita, lau urterako hitzarmena sinatu dugu. Ekarpenak bultzada handia emango dio bertsolariari.

Bertsozale Elkartean, parte hartzeari buruzko prozesua

Datorren urtean ekingo diogu. Zure iritzia ezinbestekoa izango da, bazkide, eta laster joko dugu zuregana.

Bertsozale Elkartea gizarte mugimendu anitza da. Bertsolaritza ertz ezberdinetatik gozatzen dugu eta rol ezberdinak ditugu: bertsolari, gai-jartzaile, epaile, antolatzaile, zale... Besteak beste lurralde eta egoera soziolinguistiko ezberdinetan bizi gara; eta adin eta genero ezberdinek zeharkatzen gaituzte.

Egunerokoa, laurogei soldatapeko eta ehundik gora borondatezko ari gara Bertsozale Elkartean; beste hainbat edo gehiago gara bertsolaritzaren ekosistemako gai-nontzeko eremutan errimak, puntuak, aulkia eta irribarreak josten: bertso-eskoletan, hedabideetan, ikerketa eremuetan...

Mugimenduan dagoen parte-hartzea itzela da: hori da proiektuaren muina eta indarra. Askotan, baina, bakoitzak bertsolaritzari edo elkarteari buruz dugun ikuspegia partekatze abagunerik ez dugu hartzen; zenbait kasutan, gainera, parte hartzeko guneak ez ditugu ezagutzen edota, nahiz eta ezagutu, arrazoi ezberdinengatik, informazioaren joan etorria tratatu egiten zaigu.

Azken hamarkadan elkartea asko hazi da eta horrek lan erri- moan eragin zuzena izan du, militantzia ereduak eta parte hartzeko moduak aldatzen ari dira... **Bistan denez, erakunde**

"Bertsozale Elkartean nola parte hartzen dugun eta nola parte hartu nahiko genukeen aztertzea da asmoa"

konplexua da gurea eta guzti horri buruz hitz egiteko tarte bat hartzeko asmoa dugu datorren urtean.

2018an adostu genuen elkarreak datozen 12 urteotan jarraitu beharreko bide orria. Norabidea markatuta, orain, helburu horiei erantzuteko elkartean egiturari egin beharreko doikuntzei buruz ari- tuko gara.

Bertsozale Elkartean nola parte hartzen du- gun eta nola parte hartu nahiko genukeen aztertzea da asmoa: nolakoa den gure dina- mika, ekosistemako parte diren pertsonak, harremanak...

Laburbilduz, elkarteko partaidetza prozesuan "parte hartzera" gonbidatu nahi zaitugu. Denon artean egun dugun sarea berrikusi eta hobekuntzak elkarrekin planifikat- zeko.

Neguaeren amaieran ekingo diren saioetan parte hartzeko gonbidapena jasoko duzu eta, estimatuko genuke zure ekar- pena. Garrantzitsua da zure begirada eta iritzia... beraz, adi, laster joko dugu eta zuregana.

Martxoaren 15ean, igandez, Bertsozale Elkarteko Batzar Nagusia

Urtarrilaren hasieratik martxoaren erdialdera bitarte gauzatuko ditugu herrialdeetako elkarten batzarrak.

Urte hasierarekin batera egokitzen da pasa berri den urteko kontuak berrikustea eta datorrenekoak onartzea. Urtarrilean hasita, lehen hiruhilekoan herrialdeetako elkarteei zein Euskal Herrikoari dagozkien batzarrak egingo ditugu.

Arabarrak izango dira goiztiarrenak: urtarrilaren 18an ekingo dugu Arabako elkarteko batzarra Aramaion, Bertso Egunaren hitzordua baliatuta; handik astebetara ekingo dugu Nafarroakoa, urtarrilaren 25ean, Iruñan.

Martxoan izango dira Gipuzkoako eta Bizkaiko bertsozale elkarteetako batzarrak: martxoaren 5ean eta 14an, hurrenez hurren. Bizkaikoa Getxon izango da. Gipuzkoakoa aurrerago zehaztuko da. Bertsularien lagunak elkartean biltzarra zehaz- teke dago, eta aurrerago izango duzu honen berri ere.

Segidan ekingo da Euskal Herriko Batzar Nagusia: martxoaren 15ean, Senpereko Larraldean ekingo dugu. Iritsiko zaizu gon- bidapena.



Senperen izango da 2020ko Euskal Herriko Batzar Nagusia. / XDZ



Puntu jarrita

MIKEL TABERNA IRAZOKI

Ongi ohartu zara, Alaitz: oholta azpitik ere goialde horretara joaten zaio gogoia lehenago taula gainean aritua den honi. Nola bizi dudan? Alde batetik, enpatia deitzen zaion horretako puska bat sentituz, gaiak ematen ari denaren larruan sartuz, bertze garai batean haren lekuan ezagutu nituen zalantzez eta kezkez oroituz; bertzetik, gogoeta eginez proposatzen diren lanen eta aurkezteko manieraren gainean (frankotan harrituz etengabeko bilaketa eta bilakaerarekin).

Bertzalde, oro har, bertsoaritzaren arrastoari kasu egiten diot, den-denaren berri ez badut ere. Aurten, errimarik gabeko bi hitzaldik bahitu didate arreta: Uxue Alberdiren Kontrako eztaaririk saiakerak eta Bertsolari aldizkariaren udako monografikoak. Hala batean nola bertzean, gaiak eta gai-jartzailak ere aipatzen dira, eta horiek irakurtzean nahitaez etorri zaizkit burutara denbora bateko bizipenak.

Kantari hasi nintzenez eta gai-emaitzako nire lehenbiziko urteetan, aldaize gogorra zebilen bertsoaritzan: eskola berrikoen mendebala enbor zaharrei joka. Bi mundu haiek topo eta talka egiten ari ziren, baina bazuten ezaugarri bat biak bat egiten zituena. Orain argituko dizut zein.

Gogoan dut 1991ko saio bat. Nafarroako Txapelketaren kanporaketa, Etxarri Aranatzen. Taldean prestatua genuen kartzelako gaia eman nuen: "Saiora etortzean, ohartu zara zu ez bertze gainerako kantulagun guziak emakumezkoak direla". Aunitzentzat aukera hori pentsaezina izanen zela jakinik, orain ez dakit seguru zer bilatzen genuen haren bidez: gogoeta interesgarria eragitea ala (gizon) umore uestekoaren bidez ateraldi irrigarri batzuk probokatzea. Estilo batekoak zein bertzeoak, den-denak arrak ginen han (bertsolariak, epaileak, aurkezlea...).

Hurrengo urtean, hamazazpi urte bete berriak zituen neskatxa bat aurkeztu zen, lehenbiziko emakumea txapelketaren historian. Estitxu Arozena zuen izena, eta finalean parte hartzeko eskubidea lortu ere egin zuen. Hari galdetu nahi nioke: "Zer sentitu zenuen, Estitxu, emakumezko bakar, giro hartan sartzean?".

Bazkideen datuak eguneratzen

Zurekin dugun harremana ahalik eta biziena izan dadin, etengabe berrikusi eta eguneratzen ditugu bazkideen datuak. Honenbestez, eskertuko dugu bertsozale@bertsozale.eus helbidera ondorengo datuak bidaltzea, eta, hala, gure datu basea egunean izango dugu: izen-abizenak, nortasun agiria, jaiotze data, helbidea, posta elektronikoa, telefono zenbakia eta IBAN kodea. Euskal Herriko Bertsozale Elkarateak Datu Pertsonalak Babesteko legediak xedatzen duenari jarraituz jokatu du, eta zainduko ditu datuok.

Poto-Finixa



Idazkaritzatik leihatilara, eta leihatilatik oholtzara!

XDZ

Sardinian bertsoaritzaren berri emango du ordezkari batek, abenduan

Abenduaren 16tik 19ra Cagliari (Sardinia) izango gara kongresu batean parte hartzen *Poesia; musika eta hitzen talkaren alaba* kongresuan, hain zuzen. Nerea Ibarzabal eta Maialen Lujanbio ariko dira bertsoan, eta Ainhoa Aizpurua doktoregaiak emango du bertsoaritzari buruzko hitzaldia. Inprobisatzaileen saioak ez ezik, eskoletara bisitak eta kongresuko hitzaldiak ere izango dira biraren egitarauan, Kubako, Kanariar irletako, Sardiniako zein Euskal Herriko ordezkarien eskutik.



Bertsoaritzaren historia puska bat irudiz, bertsoz, istorioz eta fikzioz. Ikuspuntu berria, liburu bakana, edizio berezia.

PUBLIZITATEA